



ESKOLAKO FORORAKO GIDOIA

IGORRE 2017.05.18 11:45

- 11:45 Parte-hartzaileen harrera
- 11:50 Parte-hartzaile guztien aurkezpena eta jardunaldiaren dinamikaren aurkezpena (ORTZADAR)
- 11:55 Udal Instituzioaren partetik ongi etorria (ALKATEA)
- 12:00 Aurreko ikasturtean egindako proposamenak (ARDURADUN TEKNIKOA EDOTA ALKATEA)
- 12:15 Ikastetxeek egindako lanaren aurkezpena eta adostutako proposamen eta konpromisoen ekarpena (IKASTETXEAK)
- 12:30 Ikastetxeak aurkeztutako proposamenen erantzuna edo hauek kudeatzeko moduaren aurkezpena (ALKATEA)
- 12:40 Alkatearen agurra, instituzioaren konpromisoa eta Eskolako Agenda 21eko arduradunaren deialdia hurrengo ikasturterako. (ALKATEA)



UDALAREN ONGIETORRIA

Egun on, ongi etorri parte hartzaile guztiei, ikasle, irakasle, etab-ei.

Urterik urte biltzen gara udaletxean, ikasturtean zehar egin duzuen lanari begirada bat emateko. Nahiz eta urtean zehar, elkar ikusteko aukera askorik ez dugun, gertutik jarraitzen dugu egiten duzuen lana.

Lehenengo urtean, zure ikastetxean egindako lana erakutsi zenigutenetik, gogoz etortzen gara urtero saio honetara, jasangarritasunaren alde egiten duzuen lana ezagutu eta gure ingurua eta udalerrria hobetzeko hartzen dituzuen konpromisoak zeintzuk diren jakiteko.

Ikusi ahal izan dugunez, hartzen dituzuen konpromisoak pixkanaka aurrera eramanez, udalerrriaren egoera hobetuz doa.

Udalak ere, Mankomunitatearekin batera, udal politikak, inguruaren kudeaketa jasangarri baterantz zuzentzeko apustua egin du, korporazioaren lana biltzen duten esparru guztietan, garapen jasangarriaren alde, elkarlanean eta modu adostuan lan eginez. Honengatik, zuen proposamenak biziki lagungarriak dira, Igorre jasangarriago bat lortzeko.

Bene-benetan eskertu nahi dizuegu egiten duzuen lana eta zuei denbora gehiago kendu gabe, hitza emango dizuet, zuen lana eta honen ondorioak bildu ahal izateko.



AURREKO IKASTURTEKO PROPOSAMENEN BIRPASATZEA

lazko Eskolako Udal Foroan eta azken urtean martxan jarri diren proposamenak birpasatuko ditugu.

1. Herriko bazterrak garbitu bertako animaliak eta landareak arrisku barik hazteko
2. Landaketa berrietan bertako zuhaitzak landatzea, kanpoko espezieak landatu beharrean
3. Herriko edukiontziak egokitu, hondakinak sailkatuta bota ahal izateko
4. Bertako zuhaitzak identifikatzeko kartelak ipini
5. Panpako lezkek kendu
6. Zuhaitzak eta basoak haien osotasunean zaintzea gustatuko litzaiguke, horretarako zuhaitzen ezagutza kartelak ipintzea
7. Arriskuan dauden espazioak defendatzea eta zaintzea
8. Baso landaketak egiten direnean bertako zuhaitzak landatzea eta identifikatzea



ALKATEAREN AGURRA

Saioa amaitu baino lehen, egiten duzuen lana eta esfortzua eskertu nahi dizkizuegu eta proiektu honetan lan egiten jarraitzera animatzen zaituztegu. Udalekoek zuen lana aintzat hartzen dugu eta zuek ematen diguzuen informazioa guk garatzen dugun lanaren baliabidea da. Beraz, eskerrik asko eta holan jarraitu!!!